

Kartoa birziklatzeko

Joan den hilean San Markos Mankomunitateak dendarien artean kartoi bilketa sustatzeko sentsibilizazio kanpaina abiarazi zuen. Hori dela eta, uztaila amaierara arte Mankomunitateko hezitzaileak dendaz denda ariko dira Donostian. Guztira, Donostiako 2.146 denda bisitatuko dituzte.

Ainhoa Irazu

Kanpaina Donostiaz gain, Mankomunitateko beste bederatzi udalerritarra luzatu da: Astigarraga, Donostia, Hernani, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Errenteria, Urnieta eta Usurbil. "Helburua dendariak kartoa birziklatzearen garrantziaz informatzea da.", jakinarazi digute Mankomunitateko kideek.

Dendek kartoi hondakin ugari sortu ohi dute eta Donostian bilketa bi modutara egiten da. Donostia Erdialdean, Grosen eta Amaran, denda ugari daudenez, egunero jasotzen dira kartoiak, astelehenetik ostiralera. Dendariak zaborrontziaren ondoan utzi behar dute kartoa. Lan talde batek jaso, biltegira eraman eta bertan sailkatuko dute ondoren zelulosa moduan birziklatzeko.



Birziklatzea ezinbestekoa da natur baliabideak alferrik ez zahutzeko.

Dendaz denda eginiko bilketa

Donostiako beste auzoetako dendariak dendaz denda egiten den bilketa zerbitzu berezian izena eman behar dute. Horrekin batera, astean bi edo hirutan Mankomunitateko biltzaileak dendatik igaroko dira kartoa jasotzera. "Hala ere, kartoi asko modu desegokian uzten da. Hori dela eta, ezinezkoa da gaikako bilketa behar bezala egin eta kartoi asko birziklatu gabe geratu ohi da", diote San Marcoseko kideek. Guzti-

Iaz donostiarrek 1999an baino %10 gehiago birziklatu zuten

ra Manukomunitateko 428 denda parte hartzen ari dira dendaz dendako zerbitzuan. Hala ere, Mankomunitateak zerbitzua denda guztietara zabaldu nahi du. "Birziklatzen ez den neurrian natur baliabideak alferrik zahutzen dira", diote. Horra hor kanpaina egiteko arrazoi nagusia.

Ekainean hezitzaileek Gros, Egia, Bidebieta, Intxaurren eta Erdialdeko denda guztiak bisitatu dituzte. Uztailean gainerako auzoetako denden txanda izango da.

Beira, plastikoa eta pilak

Bestalde, San Markoseko Mankomunitateak duela gutxi kaleratu ditu 2000. urteko gaikako biletari buruzko datuak. Estadistiken arabera, iaz donostiarrek 1999an baino %10 gehiago birziklatu zuten (plastikoa, kartoa eta beira).

Mankomunitateko udalerrien artean, Donostia da paper eta kartoi gehien birziklatzen duena. Pilei dagokionez, bilketa %12,4 igo da. Beirari dagokionez, berriz, datuak ez dira hain pozgarriak, izan ere, Donostia zazpigarren postuan dago.

Kale kantoitik

2.000 urteko gaikako bilketa

| Kartoa eta papera | Kiloak |
|----------------------------|------------------|
| Kontenedoreak | 5.365.698 |
| Ikastetxeak eta erakundeak | 440.890 |
| Dendak | 1.117.031 |
| GUZTIRA | 6.923.619 |
| Beira | |
| Kontenedoreak | 3.226.331 |
| Etxeetan Parte Zaharrea | 378.918 |
| GUZTIRA | 3.605.249 |
| Pilak | |
| | 26.470 |

